Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko ekainaren 16a, ostirala — 116 — Viernes, a 16 de junio de 2023



## DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

*Iragarkia*

2023ko ekainaren 8an Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko zuzendari-kudeatzaileak erabaki hau hartu zuen:

2023ko maiatzaren 05ean, Donostiako Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiak 153/2023 zenbakiko epaia eman zuen, langile batek Donostia Kulturaren aurka jarritako demanda osorik baietsiz, eta alderdiak lotzen dituen lan-harremana lan-kontratu finkokoa dela deklaratuz, Kontabilitateko Administrari-C1 lanpostuari dagokionez.

2023ko maiatzaren 12an, Donostiako Lan Arloko 2 zenbakiko Epaitegiak 134/2023 zenbakiko epaia eman zuen, langile batek Donostia Kulturaren aurka jarritako demanda osorik baietsiz, eta alderdiak lotzen dituen lan-harremana lan-kontratu finkoa dela deklaratuz, Laguntzarako teknikari lanpostuari dagokionez.

2023ko maiatzaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 1194/2023 zenbakiko epaia eman zuen, eta zati batean errebokatu zuen lan-arloko 4. zenbakiko epaitegiak 315/2022 autoetan emandako epaia, eta auzi-jartzaileak demandatuarekin duen harremana langile mugagabeena dela adierazi zuen. Eskatzaileak liburutegiko teknikari laguntzaile lanpostua betetzen du.

Langile horiek betetzen dituzten lanpostuak erakundearen lanpostu-katalogoan sartuta daude.

Lanpostuak iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko Ezohiko Lan Eskaintza Publikoan sartuta daude.

Donostia Kulturaren estatutuen 32. artikuluak ezartzen du erakundeko langile funtzionarioei eta lan kontratukoei aplikagarri izango zaizkiela udalean indarrean diren akordioak eta lan hitzarmenak.

Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2022/05/22an, egonkortzeko ezohiko EPE hori onartu zuen, Administrari lanpostuko 7 dotazio, Laguntzarako Teknikari lanpostuko 13 dotazio eta Liburutegiko Teknikari laguntzaile lanpostuko 19 dotazio barne hartzen zituena.

2022/11/16ko, 2023/02/27ko, 2023/04/14ko, 2023/04/16ko, 2023/04/24ko eta 2023/05/04ko erabakien bidez, aurreko epaiak aplikatuz, Administrari lanpostuaren dotazio-kopurua 7tik 6ra, Laguntzarako teknikari lanpostuaren dotazio-kopurua 13tik 11ra eta Liburutegiko teknikari laguntzaile lanpostuaren dotazio kopurua 19tik 11ra murriztu ziren.

Aipatutako epai horien eraginpeko lanpostuak finkotzat jotzen direnez, 2022ko ezohiko Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatu behar da berriro Administrari lanposturako eskainitakoak batean (1), Laguntzarako teknikari lanposturako eskainitakoak batean (1) eta Liburutegiko Teknikari laguntzaile lanposturako eskainitakoak baten (1) murriztuz.

2022/11/16ko Erakundearen Administrazio Kontseiluak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

## ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DONOSTIA KULTURA

*Anuncio*

El director-gerente de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, con fecha 8 de junio de 2023 adoptó el siguiente acuerdo:

Con fecha 05 de mayo de 2023 el Juzgado de lo Social n.º 1 de San Sebastián ha dictado la sentencia n.º 153/2023, estimando íntegramente la demanda formulada por un/a trabajador/a frente a Donostia Kultura y declara que la relación laboral que vincula a las partes es de naturaleza laboral fija respecto del puesto de trabajo Administrativo/a de contabilidad, nivel C1.

Con fecha 12 de mayo de 2023 el Juzgado de lo Social n.º 2 de San Sebastián ha dictado la sentencia n.º 134/2023, estimando íntegramente la demanda formulada por un/a trabajador/a frente a Donostia Kultura y declara que la relación laboral que vincula a las partes es de naturaleza laboral fija respecto del puesto de trabajo Técnico/a de apoyo.

Con fecha 10 de mayo de 2023 el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dictado la sentencia n.º 1194/2023, revocando en parte la sentencia dictada por el Juzgado de lo social n.º 4 de fecha 04/07/2022, en autos 315/2022 y declarando que la relación del/de la actor/a con la demanda es la de personal indefinido. La persona demandante ocupa el puesto de trabajo Técnico/a auxiliar de biblioteca.

Los puestos que ocupan estas personas trabajadoras se encuentran incluidos en el catálogo de puesto de la Entidad.

Los puestos se encuentran incluidos en la Oferta Pública de empleo extraordinaria de 2022, de estabilización de empleo temporal de larga duración.

El artículo 32 de los estatutos de Donostia Kultura establecen que al personal funcionario y laboral del Ente le serán de aplicación los acuerdos y convenios que rijan en el Ayuntamiento.

El Consejo de Administración de la Entidad de 22/05/2022 aprobó dicha OPE extraordinaria de estabilización, que incluía 7 dotaciones del puesto Administrativo/a, 13 dotaciones del puesto Técnico/a de apoyo y 19 dotaciones del puesto Técnico/a auxiliar de biblioteca.

Por acuerdos de 16/11/2022, 27/02/2023, 14/04/2023, 16/04/2023, 24/04/2023 y 04/05/2023 en aplicación de sentencias anteriores, se redujo el número de dotaciones del puesto Administrativo/a, pasando de 7 a 6, el de las dotaciones del puesto Técnico de apoyo pasando de 13 a 11 y el de las de Técnico auxiliar de biblioteca, pasando de 19 a 11.

En tanto que los puestos de trabajo afectados por las mencionadas sentencias tienen la consideración de fijo, procede modificar nuevamente la Oferta Pública de Empleo extraordinaria de 2022, reduciendo en una (1) dotación las ofertadas para el puesto Administrativo/a, en una (1) dotación las ofertadas para el puesto Técnico/a de apoyo y en una (1) dotación las ofertadas para el puesto Técnico/a auxiliar de biblioteca.

El Consejo de Administración de la Entidad de 16/11/2022 adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

EK\CV GAO-I-2023-04287

Donostia Kulturako zuzendari-gerenteari ahalmena ematea, auzibidean irmotasun-adierazpen gehiago egiten badira, 2022. urterako Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako zuzkiduren kopurua berehala aldatzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen eraginpean dauden lan-kontratuko langileen lanpostu hutsei dagokienez. Aldaketa horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaizkio lehenbailehen.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkidan eskumenak erabiliz,

ERABAKI DUT

*Lehenengoa.* Donostiako Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiaren 153/2023 epaiaren berri izatea. Epai horren arabera langile bat Donostia Kulturarekin lotzen duen lan-harremana lan-kontratuko finkoa da, Administrari lanpostuari dagokionez.

*Lehenengoa.* Donostiako Lan Arloko 2 zenbakiko Epaitegiaren 134/2023 epaiaren berri izatea. Epai horren arabera langile bat Donostia Kulturarekin lotzen duen lan-harremana lan-kontratuko finkoa da, Laguntzarako teknikari lanpostuari dagokionez.

*Hirugarrena.* Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 1194/2023 epaiaren berri izatea. Epai horren arabera, langileak Donostia Kulturarekin duen harremana mugagabea da. Eskatzaileak liburutegiko teknikari laguntzaile lanpostua betetzen du.

*Laugarrena.* 2022. urteko Lan Eskaintza Publikoa aldatzea, ondoren adierazten den moduan:

— Dotazio bat (1) murriztea Administrari lanposturako eskainitakoak sei (6) dotaziotik bost (5) dotaziora pasatuz.

— Dotazio bat (1) murriztea Laguntzarako Teknikari lanposturako eskainitakoak hamaika (11) dotaziotik hamar (10) dotaziora pasatuz.

— Dotazio bat (1) murriztea Liburutegiko teknikari laguntzaile lanposturako eskainitakoak hamaika (11) dotaziotik hamar (10) dotaziora pasatuz.

*Bosgarrena.* Erabaki hau bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*Seigarrena.* Ebazpen honen berri ematea egingo den hurrengo Administrazio Kontseiluari.

Donostia, 2023ko ekainaren 8a.—Rebeka Gallastegi Etxezarreta, Administrazio eta Baliabideen Kudeaketa Sailaren zuzendari teknikoa. (4287)

Facultar al Director-Gerente de Donostia Kultura para que, en el caso de que se produzcan nuevas declaraciones de firmeza en vía judicial, proceda a modificar de inmediato el número de dotaciones incluidas en la Oferta de Empleo Público para el año 2022 correspondiente a los puestos vacantes de personal laboral afectados por los procesos de estabilización de empleo temporal. Dichas modificaciones se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y de ellas se dará cuenta a la mayor brevedad al Consejo de Administración.

Por todo ello, en virtud de las atribuciones que me han sido conferidas,

RESUELVO

*Primero.* Tomar conocimiento de la sentencia n.º 153/2023 del Juzgado de lo Social n.º 1 de San Sebastián, que declara que la relación laboral que vincula a una persona trabajadora con Donostia Kultura es de naturaleza laboral fija respecto del puesto de trabajo Administrativo/a.

*Segundo.* Tomar conocimiento de la sentencia n.º 134/2023 del Juzgado de lo Social n.º 2 de San Sebastián, que declara que la relación laboral que vincula a una persona trabajadora con Donostia Kultura es de naturaleza laboral fija respecto del puesto de trabajo Técnico/a de apoyo.

*Tercero.* Tomar conocimiento de la sentencia n.º 1194/2023 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que declara que la relación de la persona trabajadora con Donostia Kultura es de naturaleza indefinida. La persona demandante ocupa el puesto de trabajo Técnico/a auxiliar de biblioteca.

*Cuarto.* Modificar la Oferta de Empleo Público extraordinaria de 2022, como se indica a continuación:

— Reducir en una (1) dotación las ofertadas para el puesto de Administrativo/a, pasando de un total de seis (6) a cinco (5)

— Reducir en una (1) dotación las ofertadas para el puesto Técnico/a de apoyo, pasando de un total de once (11) a diez (10)

— Reducir en una (1) dotación las ofertadas para el puesto Técnico auxiliar de biblioteca, pasando de once (11) a diez (10).

*Quinto.* Publicar en su integridad el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Sexto.* Dar cuenta de la presente resolución al próximo Consejo de Administración que se celebre.

San Sebastián, a 8 de junio de 2023.—La directora-técnica del Área de Administración y Gestión de Recursos, Rebeka Gallastegi Etxezarreta. (4287)

EK\CV GAO-I-2023-04287